
ALBIZTUR



Albizturko gunea

Albiztur jatorri karstiarreko haran gutxi-asko lauan kokatzen da, Ernio mendiaren oinean, mendiko eta transhumantziako zenbait ibilbidek bat egiten zuten tokian. Udalerriak 12,9 km²-ko zabalera eta 281 biztanle ditu (2001ean). Landatarra da batik bat eta atzerakada demografiko izugarria izan du.



Albizturko harana

Albizturko ezaugarri geologikoak bi akzidente tektonikotan oinarritzen dira: bata eskualde-mailakoa -Errezilgo faila- eta bestea toki-mailakoa eta aurrekoari lotutakoa -Berazeagako faila-. Bi egiturak Mendebaldetik Ekialdera orientatzen dira, gainazaleko litologia desberdinen antolaera bezalaxe. Bi akzidente horiei lotuta, garrantzizko beste bi egitura azaltzen dira: Ernioko sinklinal iraulia (horren mendebaldeko zati bat Albizturri dagokio) eta Urkizuko antiklinal iraulia.



Ernioko iparraldea



Karaitz urgoniarra

Hegoaldetik Iparraldera, material desberdinak nolabaiteko ordenaz azaleratzen dira. Intxurre mendiaren gailurrean Goi Kretazeoko flysch beltza dago, haranaren zatirik handiena hartzen duten fazies urgoniarreko kalkarenita eta kareharri masiboen gainean eta haiekin bat etorriz antolatuta. Horien Iparraldean, Beizako failari lotutako Urkizuko antiklinalak material zaharragoak azaleratzeko bidea ematen du eta antiklinalaren muinean marga oxfordiarrak ere ikusten dira. Serieak antiklinalaren ipar hegaletik jarraitzen du, alderantzizko noranzkoan, kareharri urgoniarretaraino. Kareharri urgoniar horiek Errezilgo failari lotutako faila-arrailen banda estu bati bat etorri gabe batzen zaie. Akzidente horrek Ernioko sinklinala banandu egiten du. Aipatutako failaren beste aldean, serie mesozoikoa azaleratzen da berriro, Behe Liasetik Ernioko mazizoaren gailur malkartsua itxuratzen duten kareharri urgoniarretaraino.


Erniozabalgo gandorra


Harkaitzegia Larrarten


Ernioko gandorra, sinklinal iraulia


Erniozabalgo gurutzea


Irumugarrietako lepoa, udalerriko iparraldean


Basagainzuloeta eta Aizpel mendia


Albizturko lapiaz erdi-estali tipikoa



Karaitza eta haran laua

Albizturko lapiaz erdi-estalia Gipuzkoan dauden mota horretako erakusgarri nabarienetakoa da. Haran hondoaren zati batetik eta, batez ere, ezkerraldeko mendi-hegaletatik zabaltzen da. Horri esker, Bidegoianera igotzen den errepidetik ederki ikusten da. Ingurune karstikoari lotuta, era berean, beste fenomeno interesgarri batzuk ikus ditzakegu, hala nola, Sorginzuloko dolina-sakonunea, tamalez zabortegi gisa erabili dena, Santutxoko lepoan, eta Beondegiko hondo lauko sakonunea, Sorginzulotik oso gertu eta egiturari dagokionez hari lotuta. Udalerriaren gainerakoan lapiaz, higadura diferentzialaren ondorioz sortutako kareharrizko gailur, dolina-eremu, leize eta haitzulo ugari daude. Fenomeno horien artean genesi karstikoko haran hondo laua nabarmentzen da, Albizturko herrigunearen euskarri.


Erniozabalgo gailurrak


Albizturko harana eta Intxurreko basoak


Baserriak, laborantza atlantikoa


Konifero landaketak

Albizturko udal-mugartean, landare-diari dagokionez, hiru eremu hauek bereizten dira: iparraldea, Ernioren mendi-hegaletan; erdialdea, Albizturko haranak hartzen duena; eta hegoaldea, Intxurre mendiaren hegaletan. Iparraldean pagadi kaltzikolen gune garrantzitsuak, belardi menditarra, larre mesofiloak eta landa atlantikoko atal txikiak daude. Horrez gain, gailurraldean kareharrizko harkaitzei lotutako landaredia dago.

Erdialdean ezarpen iraunkorrak daude. Larre eta labore atlantikoek hartzen dute azaleraren zatirik handiena eta konifero-plantazioen gune handiak ere agertzen dira. Eremu honetan harizti azidofiloek, baso misto atlantikoak eta artadi kantauriarraren masa batzuek irauten dute, landaredi potentzialaren lekuko gisa. Hegoaldea *Pinus radiata* eta *Larix kaempferi* espezieen monolaborantza da ia bere osotasunean, pagadi azidofiloen eta baso misto atlantikoaren atal batzuekin.


Mandramuñoko txabola


Baserria eta baso misto atlantikoa


Ortzabal


Oriaundiko gaztainondoa


Jasokundeko parrokia



Burnigurutzea


Plazako iturria


Bidaniko muga eta, atzealdean, Intxurre

Inguruetan zenbait monumentu megalitiko daude, gizakiaren Neolitiko garaiko presentzia adierazten dutenak. Nolanahi ere, Albizturren aurkitutako aztarna zaharrenak Brontze-Burdin Aroko zeramika-puskak dira, Beondegi-leize-zuloan aurkitutakoak. Ez oso urruti, Intxurre mendiaren gailurrean, Oria ibaiaren erdialdea menderatzen zuen gazteluaren arrastoak daude. Geroago, XI. eta XII. mendeetan, Mendikuteko gotorlekua eraiki zuten, garai hartako harkaitz-gaztelu tipikoa.


XIV. mendearen amaiera aldean, 1384an, Albizturrek Tolosarekin bat egin zuen. Batasun horrek 1617 arte iraun zuen. Urte horretan, udalerri bilakatu zen, Koroari bidezko eskubideak ordaindu ondoren. Saiazko Batasunean ere egon zen.


Albizturko biztanleria-piramidearen ezaugarriak beste landa-udalerri batzuen antzekoak dira: eskualdeko datuei dagokienez, adin handiagoko taldeen nagusitasuna, sektore gazteagoen kaltetan. Nolanahi ere, piramidearen oinarrian, beste herri batzuetan izan ez den susperraldi txikia antzematen da.


Populazioaren beherakadaren ondorioak...


Santamarina, 200 biztanle izan duen herrixka

Azken mendean biztanleriak izandako bilakaera Albizturko egoera demografikoaren erakusgarrietako bat da. 1910 ezkero egindako biztanleria-erroldek gero eta balio txikiagoak ematen dituzte, batez ere 1950etik aurrera. 1910ean 800 biztanle zeuden eta 1996an, berriz, 296. Laurogeita bost urte horietan, aldaketa sakona izan da udalerriaren ezaugarri demografikoetan eta soziologikoetan, antzeko beste herri batzuetan bezalaxe.


Atxisaeta baserria


Emio aldeko baserriak

Herrigunea haranean zehar luzatzen da, plaza aldean aglomerazio txiki bat duen bilbe lineala garatuz. Plazan, eliza, udaletxea eta etxe gutxi batzuk biltzen dira. Beste herrigune txiki batean, Arginsaingo Santamarinan, inguruko beste herri batzuen jabetzako lurrak elkartzen dira. Herrigune hori dozena erdi bat etxek osatzen dute eta horietako gehienak hutsik daude.


Santamarina, negu gorrian


San Gregorio ermita


Beraundegiko mugarria


Irumugarrieta


Erniozabalgo mugarria


Nekazaki kutsuko herria da Albiztur

Albizturren langabezia-tasa gutxienekoa da eta nekazaritzaren eta eraikuntzaren sektoreek eskualdeko batez bestekoarena baino askoz ere portzentaje handiagoa dute.

Herrian industria-establezimendu batzu kokatzen dira eta horrek sarraski demografikoa arindu egiten du neurri batean behintzat.



Txorrostegin, garai bateko soroak

Albizturren ez dago berez merkataritza-establezimendurik. Ostalaritza-sektoreak 5 establezimendu ditu, bertako espezialitate bilakatu diren Tolosako babarrun goxoen babespean, eta bisitari ugari erakartzen ditu asteburuan.


Olamuño eta Tolosako harana

Jasokundeko Andre Mariaren eliza XVI. mendean eraiki zen, nahiz eta kanpoaldetik itxura barrokoa duen, 1655 eta 1743 bitartean egindako birmoldaketa-lan handien ondorioz.


Elizako arkupea


Santamarinaundiko atea


Iturriko kainua


Santamarina parrokiko atea

Udaletxeak, bestalde, eskema tradizionalari jarraitzen dio eta udal-kartzelako atea mantentzen du oraindik. Plazak osatzen duen espazio publikoa itxura tradizionaleko beste zenbait etxeren bidez ixten da. Herrigune luzearen gainerakoak ere eraikin interesgarriak biltzen ditu, batzuk Erdi Aroko kutsuarekin, esaterako, Errekalde, edota elementu bitxiak gordetzen dituztenak, hala nola, kakaoa eta txokolatea ehotzeko harriak, antzina gozotegi izandako Oria etxearen kasuan. Eraikin gehienek antzeko ezaugarriak dituzte: bi oin eta estalkipea, harlandua behe-oinean eta baoetan, hormarria zurezko armazoiekin goi-oinetan.

Etxeberriko gobarajolekua

Arretxea

Urretaundi

Urrutume

Udaletxea

Errikoko mahaia

Ubeltzeko buzoia

Santamarinaundiko lehioa

Leiho tradizionala

Landa-inguruneran ere eraikin eta baserri interesgarriak daude: Arrospidebekoa (1550), Urretaundi (XVIII. mendeko oinetxea), Santutxoko galtzada eta Santamarinako herrixka, bidegurutze batean. Santa Marinako eliza Santamañaundi dorretxearen aurrean dago kokatuta eta alboan berant erromanikoko portikoa du (XIII. mendea).

Errekaldeko leihoa

Udaletxeko eguzki-erlojua

Artutxaiturri

Apaiziturri

ALBIZTUR OINEZ EZAGUTZEN: PR-Gi 81 ibilaldia

PR-GI 81 IBILBIDEA

Albiztur - Ortzabal - Albiztur

Luzera: 9,5 km
Gainbehera: 500 m
Iraupena: 3 ordu

- GR 21 eta GR 34
- PR-Gi 81 (Albiztur)
- PR-Gi 82 (Bidegoian)
- PR-Gi 83 (Errezil)
- PR-Gi 77 (Larraul)
- PR-Gi 78 eta 79 (Alkiza)

	BIDE ZUZENA	BIDE OKERRA
G.R.		
P.R.		

Ibilbideari ekiteko udaletxetik Ugarteraino joatea duzu onena. Bidean zoazela Urrutikoetxea, Aitzalde, Errekalde, Torrea, Iriarte, Oria, Mitxenea, Elenarena eta Zubiaurre bezalako etxeak ikusiko dituzu; baina, baita baserri-etxe bikainak ere. Gainera, Albizturko garai bateko ospitale zaharraren aurrean oraindik dagoen harraskan ur piska bat biderako hartzen baduzu, ez zaitu damutuko. Eta halako batean Ugartera (Erdikoerrotara hain zuzen ere) iritsiko zara; bertan zaudela, ibilbidetik 100 metrotara-edo, San Gregorio ermita dago. Honen berri 1601 urteaz geroztik badugu eta, Gorosabelek dioenez, bertan erromesentzako ospitale bat zegoen, Gracia de Goikoetxeak eraikitakoa.

Labaderoa

1 Ugarten, bertako kale nagusia utzi eta, aurrenengo aldiz, aldapari heldu beharko diozu; baina, lasai: gogorra iruditzen bazaizu ere, es da horrenbesterako. Gainera, ordeka laster izango duzu; berriz ere etxeak ikusiko dituzu eta, konturatzeko, Pagolarena baserrian izango zara.

Gurutzea

2 Behin Pagolarena utzi ondoren, behetik gora doan bidea dotorea da. Zure atzetik San Anton harrobia ikusi ahal izango duzu. Aurrera segi eta Urrutume baserrira heltzean une batez gelditzeak merezi du. Aurrealdean dauzkan kararrizko bi harraskak ikusgarriak dira, gaur egun nekez ikusten den hargin-lana. Urrutumetik aurrera pasabide batean sartuko zara. Punto honetan, ipar.mendebaldera jo behar duzu, Koruatik barrena, Elutseta alderako norabidea hartuz. Konturatuko zara bidea errepideen tankerakoa dela orain, pausoa emateko erosoagoa. Baina, uraren eraginez higatu egin da eta, ondorioz, bide labainkorra bihurtu da. Kontuz, bada, bertatik pasatzean. Eta bat-batean ekialdera abiatuz gero, Olateagazpi eta Olateagagoikoa baserriak aurrez aurre izango dituzu.

Urrutumeko harraska

3 Olateagatik gora jo beharko duzu; baina lasai, aldapa-zantzu bat besterik ez da-eta. Aurreraxeago, 250 metrora edo, eta Arantzabe baserrira heldu aurretik, mendira doan bidea hartuko duzu. Bide honetan zoazela, zoruan txukun jarritako harri batzuk ikusiko dituzu, belar edo orbel asko ez badago behintzat. Zer diren?. Ba, garai bateko bide zahar baten aztarnak. Bidea iparraldera doa, Albizturko herria Urkizu auzoarekin lotzen duen bideraino.

Olateaga baserriak

Honezkero, geldialditxo bat egiteko premia ere izango duzu; beraz, auspoari atseden piska bat eman, kontu batzuk esan eta, mokadu bat hartuz, momentu batez geratzeko aukera izango duzu; horretarako leku egokian izango zara. Hala eta guztiz, gorputzaldi ona ez baduzu edo ibilbidea uste baino luzeagoa egiten ari bazaizu, ez larritu: ezkerretara duzun bidea hartu eta, berriro, Albizturren zara.

4 Azkeneko ur-tragoa egin ondoren, etorri zaren bidea zeharkatu eta aurren duzunari heldu beharko diozu. Hasieran aldapa gogor samarra topatzen baduzu ere, lasai egon, ez da luzea eta; ikusiko duzu nola behin Intxurbia baserritik aurrera pausoa arinago egiten den. Baina argi ibili, zoazen pistatik adar batzu ateratzen dira eta, noski, deskuidatuz gero, bidea galtzeko arriskua izango duzu. Ekialdean Zelaitxikiko gaina azalduko da eta ezkerrera jiratuz gero, Mendikuteko tontorra hegoaldera utziko duzu. Mendi honen buruan Erdi Aroko gaztelu baten arrastoak daude.

Mendikuteko gazteluaren aztarnak

5 Puntu honetan zaudela, eskuinera eta 100 bat metrotara Hernialdetik datorren PR-Gi 80 bidea dago. Hemen ezkerrean dauden marka txuri-horiei jarraitu behar diezu. Baso irteeran bertan, Gorostidiko borda ikusiko duzu. Bide berdinetik segi, tapa-tapa, eta berehala ohartuko zara beste paraje batean zaudela, zelaiez josia dagoen Ortzabalgo parajean hain zuzen. Aurreko baso beltza oraindik ere buruan duzula, burdinezko langa daukan itxiturara ailegatuko zara; orduan, bidea utzi eta pasadizu estu batetik alanbrea pasatzen duzunean, erreka ziztor batera jaitsiko zara; hemen, bide berri bati helduko diozu eta bideak aldapa kozkor bat igota, beste borda batera eramango zaitu.

Ortzabalgo zelaiak

6 Borda hau eskuinera utzi eta burdinezko langa pasatuko duzu ondoren; errekari jarraituz, piska bat jaitsi eta berritu berria den Larrarte baserrira helduko zara. Baina ez joan bertaraino; metro batzuk lehenago ia buelta-erdia eman eta bide berri bat hartu, merezi duena hau ere. Aurrera segi eta Txorrostegi baserria izango duzu aurrez aurre.

Txorrostegirako bidea

Albizturrera heltzen

7 Txorrostegitik Ariztizabal baserria ikus daiteke, ikuilutako bakarrik erabiltzen dena. Bidearen goialdean zelaiak eta behealdean, berriz, basoak daude. Mendebaldera Txinkortako gaina eta ekialdera Igaranerrekako sakona ikusi ahal izango duzu. Ondoren, Atxisaeta baserrira helduko zara berehala.

8 Baserriaren ezkerraldetik ateratzen den bideak baserria bera azpialdetik inguratzen du. Bide honi jarraitu beharko diozu. Ate estu eta beltz batek porlanezko bidera eramango zaitu; berau zeharkatu, kontu handiz harrizko eskaileratan jaitsi, eta, honela, Albiztur eta Bidegoian garai batean lotzen zuen bide zaharrera ailegatu arte. Bide honi GR 21 bidea elkartzen zaio, porlanezkoa hau ere, Xabierko Gaztelua Loiolarekin lotzen duen bidea hain zuzen. Bukaerara iristen ari zara. Ezkerrean baserri bitxi bat, Guardizar edo Baldatxo izenekoa, ikusiko duzu. Baserri honek ibilaldia amaitu duzula jakinaraziko dizu, Herriko Plazara heldu aurretik.

ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEA